

• AZKENA •

Josemari Velez de Mendizabal

Aventuras de un maketo

A

rrazoi objektiboak irrazionaltasunik subjektiboenera eraman gaitzake, samur asko. Arrazoi objektiboa, azken finean, arrazoi errearen eta arrazoiaren artean kokatzen da, hots, ez da arrazoi hutsa ezta erreal hutsa ere. Horren guztiaren bereizketa eremua, aldiz, gaua eta egunaren artekoa bezain eskuragaitza da.

Sarrera horretara eraman nau, oharkabean, *Aventuras de un maketo* deritzan libururen irakurketak. Nire adiskide adindu baten etxeko liburutegitik eskuratu nuen. Liburua Kaliforniako Orfeo argitaletxeak eragin zuen, argitarapena, 1957an, Madrilen egin bazen ere. Egilea, Pedro Fernandez Ormaetxea (PFO) da, Burgosko Vadocondes herririk 1888an jaioa. Eta egileak berak aitortzen duenez, bere euskal jatorri biologikoa oso data urruti batean ezkutatzen zen, gutxienez zazpi belaunaldi lehenago. PFOren sendia Burgosko Fuentemolinos herrira aldatu zen, eta bertan PFO amaz umezurtz geratu zen. 1900 urtea zen.

Garai hartan Fuentemolinosko maistra emakume gazte bat izendatu zuten, Pepita Arin, Gipuzkoako Billabonan jaioa, Garmenditxiki baserrian, hain zuzen. Handik gutxira, PFOren aita maistratz maitemindu eta billabonatarra gure protagonistaren amaordea bihurtu zen. Eta orduantxe hasi zen PFO ideia zehatzagorik egiten bere ama berriaren herrialdeaz. Egileak kapitulu berezia eskaintzen du liburuan, berarentzat ordura arte zeharo ezezaguna zen Euskal Herria nola deskubritu zuen azaltzeko.

Gipuzkoako Aretxabaletari egokitzen dio tarte berezia PFOk, 1902ko abuztuko jaietara bidaiatu baitzen Vadocondesetik, bera bakarrik. Ibilbidea trenez egin zuen Gasteiztik Aretxabaletara: “*Allí nos esperaba la diligencia con sus cuatro caballos que, poco después, me dejaba a la puerta de la casa parroquial donde vivía mi tío Jose Joaquín Arin, el cura del pueblo*”. PFO etxe hartara iritsi orduko, bertan zeuden “*mamá Pepita, el tío Gervasio, la abuela...*”. Eta jaien ostean, denak Billabona-



DANI BLANCO

ra: “*Las tierras de mi abuelo estaban sembradas de maíz y plantadas de castaños y manzanos*” ikus-teak umea harritu bide zuelarik.

PFOk *Memorias de un maketo* liburuan bere bizitzako pasarteak agertzen ditu, batez ere behin kokortuz gero Amerikako Estatu Batuetan eta Filipinetan burututakoak. Bien bitartean bere sendiak gorabehera dezente bizi behar izan zituen. Eta Fernandez Ormaetxea abizenekoei Fernandez Arin anaia-arrebaorde ugari gehitu zitzaizkien. PFO Manilan lanean ari zela aita hil zitzaion, eta *Mamá Pepita* erabakia hartu zuen: anaia apaizarengana aldatuko zen bizitzera. Jose Joakin Arin, ordea, ordurako Arrasateko erretorea zen. Eta 1930 inguruan Pepita Arin eta fernandez-arindarrak sarrailagile herrira heldu ziren, bizitza berri bati ekiteko asmoz.

Baina gerrak asmo guztiak hankaz gora ipini zituen. Eta arindarren atera jo zuen faxismoak, herensuge aseegin modernoak balitz bezala, giza tributuak exijituz. Eta, besteak beste, Jose Joakin Arin erretorea etxetik atera eta Oiartzungo kanposantura eraman zuten frankistek, bertako hormaren kontra fusilatu zutelarik. Une hartan PFO Manilan bizi zen, iparramerikar nazionalitatea eskuratuta. Hogeita bat urte beranduago kaleratutako bere liburuan irakurtzen da: “*Mi familia en España era completamente apolítica, era gente sana y laboriosa, y gracias a eso, a pesar de estar esparcidos por toda España bajo el dominio de ambos regímenes, nada grave les sucedió...*”.

Hasieran nioen bezala, arrazoi objektiboa ez da arrazoi hutsa ezta erreal hutsa ere. Auskalo zer arrazoik eraman zuen PFO halako baieztapenik egitera! Zentsurarako beldurrak? Zentsura bera izango al zen egileak idatzitakoa estali zuena? Uko egingo al zion PFO maketoak bere euskal sendiari? Ez al zion PFOk fusilatze prozedura ariketa larrizat hartuko? Egon badago beste galdera bat ere: benetan fusilatu al zuten erretorea? Tamalez, horri dagokion erantzuna da erreal huts bakarra. ■

Auskalo zer arrazoik eraman zuen

Pedro Fernandez Ormaetxea

halako baieztapenik egitera! Zentsurarako

beldurrak? Zentsura bera izango al zen

egileak idatzitakoa estali zuena? Uko egingo

al zion PFO maketoak bere euskal sendiari?